



**LH
5-6**

Augustin
Zubikarai
XIV. ipuin rallya

2025-26 ikasturtea
ONDARROA

Idaztea ariketa ausarta da, eta are ausartagoa norberaren barrukoa partekatzea, noiz eta ordu bi bakarrik izanda halako ariketa bat egiteko. Batzuk pozik geratuko ziren egindako ariketarekin beste batzuk, ostera, ez hainbeste; baina gauza bat bistan da: gure gazteek erronkari egin diote aurre irudimenez eta gogotsu.

Bilduma hau ez da ohiko liburu bat. Orrialde hauek leiho bat zabalik uztea bezala da, gazteen ahotsarena: begiratzeko modu bat, mundua ulertzeko saiakera zintzo bat. Istorio bakoitzak badu bere tonua, bere erritmoa, eta, bakoitzean, aldi berean, galderak, kezak eta ilusioak planteatzen ari zaizkigu. Gazteen pultsua gertutik sentitzeko aukera bat da hau. Zer pentsatzen dute? Zerk harritzen ditu? Zerk mugitzen ditu barrutik? Hemen aurkituko dituzu erantzun batzuk... eta, ziurrenik, galdera berriak ere bai. Horixe baita literaturaren indarra: irakurlea mugiaraztea, beste begirada batzuk ezagutzeko aukera eskaintzea, eta gure ingurukoak hobeto ulertzen laguntzea.

Hartu tarte bat, irakurri lasai; seguru gaude, istorio hauetan, espero zenuena baino gehiago aurkituko duzula.

LH
5-6

AURKIBIDEA

4 **BASOKO KAMISETA LAGUNGARRIA**
ITZEA BADIOLA AGIRREOA

7 **GAZTA MAGIKOA**
JULEN URRIOLABEITIA EGIGUREN

11 **KUTXA**
ENARA RETOLAZA BILBAO

15 **MARI ETA TRANSILVANIA MAGIC ESKOLA**
JARE ARANBARRI BLANCO

19 **BOST DESAGERTUAK**
KATY AGUILAR PACHECO • AIORA ELUSTONDO BEDIAUNETA

Augustin
Zubikarai
XIV. ipuin rallya
2025-2026 ikasturtea



ondarru
bixi-bixi

Epaimahaikideak:
Leire Bilbao Barruetabeña
Ana Urkiza Ibaibarriaga

Antolatzailea:
ONDARROAKO UDALA

Babeslea:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



Bizkaia
foru aldundia

Basoko kamiseta lagungarria


Egun eguzkitsu bat zen Ondarroan eta Ane, beti bezala, korrika egi-tera atera zen. Ez zuen gogoko jendearekin egotea, horregatik ez zuen lagunik. Gogoko zituen astelehen goizak, jende gutxi egoten zelako kaleetan zehar. Kamiñazpitik hasi eta Saturraranera arte bakarrik joan zen, hondartzan beste korrikalari batekin topo egin zuen arte. Korrikalaria beldurtuta eta konfundituta zegoen eta eskuarekin Aneri ba-soan sartzeko keinua egin zion.

Ane konfiantza gutxirekin basoan sartu zen eta han, zuhaitz guz-tien erdian, neska arraro bat topatu zuen. Neska beldurtua bezala ze-goen. Ane makurtu eta neskak boltsikotik kamiseta arraro bat atera zuen.

– Zertarako da hau?– galdetu zuen Anek oso harrিতuta neskaren jokaerarekin.

Neskak, ordea, erantzunik eman gabe buelta eman eta bere bi-detik jarraitu zuen.

Etxera iritsi zenean, kamiseta probatzeko gogoia zuen, baina bel-durrak ez zion uzten aurrera egiten, eta azkenean, kamiseta poltsa ba-tean sartu eta zamarretara bota zuen.



Egun oso bat igaro zuen, bakarrik eta triste, eta astearte goizera arte ez zuen kamisetarekin pentsatu.

Kamiñazpitik atera zenean konturatu zen astearte hura ez zela egun arrunt bat. Jende guztia berari begira zegoen eta Ane urduri ipin-tzen hasita zegoen jadanik. Saturraranera iritsi zenean, basoan murgildu eta han hiru neska aurkitu zituen, denak aurpegi urduri eta tristearekin.

Fijatu orduko konturatu zen denek kolore bereko kamiseta zeramatela eta burua makurtu zuenean... Zer ikusiko eta bezperan botatakoa han zegoen ostera ere.

Anek kamiseta jantzi zuen eta korrika batean etxerako bidea hartu zuen. Iritsi, etxeko atea kolpe batez itxi, eta gertatutakoari buruz pentsatzen hasi zen. Bat-batean, etxeko tinbrearen hotsa entzun zuen eta atea ireki zuen. Bertan lehen ikusitako neskak agertu ziren.

– Zertarako etorri zarete?– galdetu zuen Anek.

– Zuri begiratzen egoten ginen korrika joaten zინean. Badakigu bakarrik ibiltzen zarela eta hori ez gertatzeko etorri gara.

– Atsegin dut bakardadea– erantzun zuen Anek.

– Gu ere lehen bakarrik egoten ginen, baina orain oso lagun minak gara– azaldu zuen ordura arte hitz egin zuenak.

– Beno, hobeto pentsatzen baduzu, gu egunero zubian geratzen gara korrika egiteko–, eta besterik esan gabe atetik desagertu ziren.

Anek bi egun behar izan zituen ongi pentsatzeko, eta hirugarren egunean herriko zubian agertu zen.

Handik aurrera Ane lagun berriak egiten hasi zen eta triste eta bakarrik egoteari utzi zion.

Gazta magikoa

Bazen behin kuadrilla bat, mitologia pila bat gustatzen zitzaiona. Larunbat batean Ondarruko parkean geratu ziren. Beti bezala, mitologiari buruz hitz egiten zebiltzan. Mikel izeneko mutiko batek eta Sara izeneko neskato batek mitologiako pertsonaiak parkera ekarri nahi zituzten.

- Nor da zuen mitologiako pertsonairik gustokoena?–, galdetu zuen Mikelek bere ideiarri jarraitu nahian–. Adibidez, nirea Mari da.
- Benetan, nik ere berdin pentsatsen dut–, Sarak jarraian.
- Nirea Tartalo da–, Jonek.
- Gehienon gustokoena Mari da gurea ere Mari bera delako–. Esan zuten Marenek eta Ismaelek.
- Orduan nahi duzue Mari parkera ekartzea?–, Mikelek eta Sarak.
- Bai–. Besteek irrikitan zeudela Mari ikusteko.

Mikel bere etxera igo zen Mariren liburua hartzera bere mitologiari buruzko liburuen apalean, topatu eta hartu egin zuen. Mutikoa parkera jaistean liburua ireki zuen lagunekin batera eta Mari parkera ekartzeko eskaera erritua egiten hasi ziren.



– Mari, Mari! Etorri guregana gazta zatia eman eta gurea izango zara.

Eskaera erritua amaitu ondoren gazta zatia eman ez erritua amaitu zuten.

– Ondo atera da erritua–, esan zuen Ismaelek.

– Bai, egia da eta liburuan jartzen du orain gazta zatia lurrean uzteko–, esan zuen Marenek.

– Arrazoi duzu baina ez da amaitu, morea egon arte ez hartzeko esaten du, bestela Mari ez dela etorriko–, esan zuen Jonek.

Gazta zatia lurrean utzi zuten eta denak etxera joan ziren.

Gauean ezin lo eginik, leihotik begiratu eta gazta zatia lurrean ez zuten ikusi. Berriz parkera joan ziren pozez ikusteko ea gazta zatia han zegoen. Zer ikusiko eta bezperan botatakhoa han zegoen osterara ere, horrez gain, more zegoen.


– Bai, lortu dugu; more dago. Eskerrak ikusitakoa ez den egia–, esan zuen Sarak.

– Liburua hartu dut eta hemen jartzen du Mariren irudia asko gustatzen zaion batek ikutuz gero, Mari guregana etorriko dela... Ondo iruditzen bazaizue nik ikutuko dut–, esan zuen Mikelek.

– Bai!–, besteek.

Bost segundu ondoren Mari beraien atzean agertu zen.

– Mari hemen zaude–, esan zuen kuadrillak.



– Kaixo!–, esan zuen Marik sutan erretzen zegoela–. Desio bat eskatu ahal duzue.

– Ados, Mari–, kuadrillakoak.

Kuadrilla pentsatsen ari zela Joni ideia bat etorri zitzaion burura.

– Badakit! Nahi dugunean, mitologiako pertsonaiaren bat guregana ekartzea, baina guri minik eman gabe.

– Ideia ona, Jon–, esan zuten denek.

– Mari, pentsatu dugu gure desioa zein izan ahal den–, harro zegoela Mikelek.

– Zein da desioa?–, Marik.

– Nahi dugunean mitologiako pertsonaiaren bat guregana etortzea baina guri ez minik ematea, gu laguntzera etortzea–, esan zuen Marenek.

– Desio ona–. Marik desioa betetzeko prest zegoela esan zien.

Marik eskuak zabaldu eta eskuak mugitu ondoren desioa bete zen.

– Agur kuadrilla! Nahi duzuenean etorriko gara–, Marik.

– Eskerrik asko!–, esan zuten denek Mari joan bitartean.

– Agur!–, Sarak.

Denek nahi zutenean mitologiako pertsonaiak etortzea eskatzen zuten. Inoiz ere ez dute gorrotatuko mitologia eta azkenean ametsa bete zuten.

Kutxa

Bazen behin emakume zahar bat bere bilobarekin bizi zena. Adinekoa izan arren, amona osasuntsu zegoen. Biak Kalifornia inguruko herri txiki batean bizi ziren.

Etxea nahiko zaharra zen, eta hormak zahartuta zeuden. Amonek beti kontatzen zizkion istorioak bilobari. Biloba nahiko triste zegoen amonarekin bizitzera joan behar izan zuenean, 7 urterekin gurasoen heriotza jasan behar izan zuelako.

Harrezkero, bilobak ametsgaiztoak ditu egun horrekin. Aitak gidatzen zuen, eta neskatoaren abesti gogokoena entzuten zen bitartean, auto batek beste erreia hartu zuen. Emakumea lo zegoen lanegun luze baten ondoren, eta, horren ondorioz, neskatoaren aitararen autoa jo zuen. Neskatoari ez zitzaion ezer gertatu, baina bere gurasoak odolez beteta eta hilda ikusi zituen.

Harrezkero, beldurra die autoei. Beti amesten ditu amaren istorioekin eta hitzekin, lo egin aurretik. Neskatoak bi arrazoiengatik





maite zituen bere amaren istorioak: kontatzen zizkion istorioak ederrak zirelako eta, bizitza lezioak zituztenez, milaka gauza ulertzen laguntzen zioten. Era berean, kontatzen zuen modu goxoa edonori gustatzen zitzaiolako. Aita, berriz, oso serioa zen, baina oso onbera. Hori alde batera utzita, amonak beti onartu izan du den bezala. Amona eta ama hainbesterako ziren. Asko gustatzen zitzaion familia osoarekin egotea, baina orain amona bakarrik dauka. Ez da ez zitzaiolako gustatzen berarekin egotea, baina izugarri gustatzen zitzaion familia guztiarekin egotea, eta guztiz desberdina zen. Aldaketa handia izan zen 7 urteko neskato bantentzat. Neskatoak amonarekin egin zion aurre.

Urtebeteren ondoren eskolara itzuli eta ikasketekin jarraitu zuen beste hiri batera joan behar izan zuen arte, gustuko zuena ikasi ahal izateko: literatura arteekin batera. Beste hiri batera joan behar izan zuen, Los Angelesera. Han, jende asko ezagutu zuen; bertan, deskubritu zuen zer den maitasuna; hantxe, aurkitu zuen dena.

Hiru karrera egin arte ikasi zuen, eta idazle handi batean bihurtu zen. Bere margolanak oso ospetsuak egin ziren; jende askori gustatzen zitzaion egiten zuena, eta historiako abokaturik onenetakoa bihurtu zen.





Ospatzera itzuli nahi izan zuen, baina bere amona tiroz hilda ikusi zuen eta poliziari deitu zion eramateko. Iritsi bezain laster irten zen handik, baina hurrengo egunean aurreko egunean zer ikusiko eta bezperan botatakoa han zegoen ostera ere. Amonak hor jarraitzen zuen, ustel usaina zeukan, asteak igaro balira bezala. Ikaragarria zen hura lurrean odolez beteta ikustea. Azken finean, neskatoak familia osoa galdu zuen: amona, ama eta aita.

Biharamunean, eraman egin zuten, eta beste kasu bat zabaldu zen. Neskak marrazten eta idazten jarraitu zuen. Bi urteren ondoren, ez zuten hiltzailea aurkitu. Neska, bi seme-alabekin eta ezkondua, Amonaren etxera joan zenean, erreforma batzuekin saltzeko moduan egongo ote zen ikustera, «Here Comes the Sun» kanta entzuten hasi zen. Istripu hartatik ez zuen entzuten. Lehen notak entzuten ziren bitartean, malko batzuek ihes egin zioten. Gero ikuskaritzarekin amaitu zuen, bere eta amonaren gauza batzuk eraman zituen.

Bi asteren ondoren, etxea eraberritu eta hara aldatzea erabaki zuten. Amonaren gelan kutxa bat zegoela konturatu zen neska. Irekitzea erabaki zuen; barruan zeuden amonaren, aitaren eta amaren gauza guztiak. Gero kutxa itxi eta ez irekitzea erabaki zuen.

Bi urte geroago, denak zoriontsu bizi izan ziren. Eta neskak orain amonaren eta amaren istorioak kontatzen dizkie bere seme-alabei.



Mari eta Transilvania Magic Eskola

Bazen behin Mari izeneko neskatila bat, herri txiki eta polit batean bizi zena bere familiarekin. Marik magia zuen gustuko; hori dela eta, nagusitan sorgina izan nahi zuen.

Egun batean Mari etxera bueltan zihoala, iragarki bat ikusi zuen eta bertan ipintzen zuen: «*UDALEKUAK BUELTAN DATOZ, SORGINTXO BAT IZAN NAHI?*»

Marik karteltxo hartuta etxera bueltatu zen:

– Zer Mari, non ibili zara?–, galdetu zion Amak.

Marik erantzun zion:

– Kalera irten naiz. Zer eguraldi ona dagoen hor kanpoan! Arratsaldean lagunekin hondartzara joan ahal naiz?

Amak irribarre egin zion eta esan zuen:

– Noski baietz! Baina notizia txar bat daukat.

Marik aurpegi arraro batez galdetu zuen:

– Zer, ama?



– Ongo udan ezin gara oporretara joan, baina nahi duzun udalekutan apuntatuko zaitut–, erantzun zion amak.

– Amatxo, ez dio axola, hurrengo udan joango gara! Gainera, ka-lean iragarki hau topatu dut–, esan zion barrez Marik.

– Bikain! Bihar bertan «Transilvania Magic Eskolara» joango zara.

Mari, ama, aita eta bere amona bazkaltzera joan ziren. Amonak esan zion Mariri:

– Zer laztantxo, udalekuetan parte hartuko duzu?

– Noski baietz! –, erantzun zion Marik.

Arratsaldean Mari hondartzara joan zen. Hondartzan hizketan hasi ziren. Miren eta Nikole dantza artistikoen udalekura joango zirela, eta, halako batean, Marik esan zuen:

–Joan egin behar naiz, maletak egin behar ditut!

Nikolek eta Mirenek agur esan ostean alde egin zuen.

Hurrengo egunean, Mari autobusera igo eta «Transilvania Magic Eskolara» abiatu zen. Heldu zenean logelako kidearekin elkartu zen. Bere izena Maialen zen. Erlojuak arratsaldeko laurak puntuan jo zuen eta korrika abiatu zen klasera. Klasean milaka gauza ikasi zituen.

Meriendatzeko Maialenek Mariri bere amonak egindako bokata elkarbanatu zion. Gauean Marik ezin zuen lorik egin eta orduan, liburutegira joan zen liburu bat hartzera. Liburu horrek magia zuen barruan.

Goizeko ordu bietan, magia egiten hasi zen, Mariren lehen aldia zenez, ez zekien erabiltzen eta konturatu gabe Maialen igel bihurtu zuen. Orduan, korrika liburua gorde eta lotara joan zen.

Goizean, gosaltzera joan zen eta Maialeni buruzko kartelak zeuden eskola guztian zehar, galduta zegoela adierazten.

Hamazortzi egun ondoren, Marik magia probatu zuen berriro eta edari bat prestatu zuen. Igelari eman zion eta... zoritxarrez, ez zen Maialen. Geratzen zitzaion edari apurra jausi egin zitzaion. Hurrengo egunean, zer ikusiko eta bezperan botatakoa han zegoen ostera ere. Mari gogoratu zen bezperan edaria jausi zela, baina, ostera ere, bertan zegoen. Maialenen ohean igel bat zegoen. Magia klaseen ondoren, liburutegira joan zen eta sorgin batekin topatu zen.

- Kaixo, Mari, nora zoaz?–, galdetu zion.
- Nire laguna igel bihurtu dut, zer egingo dut?
- Gaueko hamabietan joan sukaldera–, esan zion sorginak.

Halako batean, sorgina desagertu zen. Gaueko hamabiak eta hogeitaziren eta Mari sukaldera joan zen. Bertan sorgina eta milaka botetxo zeuden.

- Kaixo, Mari, Maialen oraindik sorgina da?–, galdetu zion.
- Noski baietz!–, erantzun zion Marik.

Sorginak eta Marik, edari majiko bat egin zuten eta igela, Maialen bihurtu zen. Ondoren, barkamena eskatu eta lagunik onenak egin ziren Mari eta Maialen.





Bost desagertuak

Orain dela hogeitasei urte gertatu zen istorio bat kontatuko dizuegu. Bazen behin lau lagun: bi ahizpak ziren, Ane eta Izaro. Anek ile marroia zuen, Izarok, ordea, ile horia. Anek hamalau urte zituen eta Izarok hamahiru. Biak baserrian bizi ziren. Beste biak hirian. Ez ziren oso ondo konpontzen, beraien gurasoek batera zeuden, eta anai ordeak ziren.

2000ko uztailaren 2an Ane, Izaro, Mikel eta Ametz elkartu ziren. Ametzen 12.urtebetetze festa ospatzeko.

– Kaixo!!!–, oihukatu zuen Ametzek irribarretsua.

– Zorionak, Ametz, hamabi urte handi!!!–, esan zuten Anek eta Izarok.

Festan oso ondo pasatu zuten laurak.

Baserritik irten zirenean auto batek pertsona bat zapaltzen ikusi zuten. Bi aldiz pentsatu gabe pertsonarengana hurbildu ziren ikustera ea bizirik zegoen. Ikusi zutenean hilda zegoela, beldurtuta, arrastaka basora eraman zuten.



Anek aurretik pala bat hartu zuen baserritik. Heldu zirenean, Anek lurrean zulo bat egin zuen. Ondoren, hildako pertsona zulo barrura bota zuten. Ane, Ametz, Mikel eta Izaro baserrira bueltatu ziren. Lo zakuak hartu eta denek elkarrekin lo egin zuten.

Hurrengo egunean, txurro goxo-goxoak gosaldu eta gero motxialak prestatzera joan ziren. Lau bokata, ur botilak eta toalla bat sartu zuten.

Baserritik irten zirenean zer ikusiko eta bezperan botatakoa han zegoen ostera ere, bide erdian.

- Haaaaaaaaa!!!!!!–, oihukatu zuten denek.
- Nola izan liteke posible?–, galdetu zuen Izarok, harrituta.
- Baina, baina, atzo mendian lurperatu genuen! EZ DA POSIBLE!!!–, esan zuen Mikelek.
- Goazen berriro lurperatzera!–, esan zuen Anek.

Denak elkarrekin bezperan joan ziren leku berdinerara joan ziren. Zuloa lurrik gabe ikusi zutenean harrituta geratu ziren, eta hildako gorpuari begiratu zioten.

Ondoren, berriz ere, lurperatu egin zuten.



DESAGERTUTA

ANE



IZARD



AMETZ



AITOR



MIKEL

TLFNA: 072 35 81 93

SARIA: 1.000 €



Lau lagunak atzera begiratu eta pertsona bat ikusi zuten; pertsonak aurpegi arraroa zuen. Pertsonak orbain bat zuen begi osoan. Pertsona arraroak poltsa batzuk buruan jarri zizkien umeei eta denek konortea galdu zuten.

Esnatu zirenean lokal batean zeuden, gaiztoak atzaparrak kendu zizkien denei eta berriz ere, basora eraman zituen. Hildako gorpuaren ondoan lurperatu zituen umeak. Eta esan zuen gaiztoak:

– Ja ja ja ja ja!!!... Inoiz gehiago ez zaituztet ikusiko ume mokoak.

Umeen gurasoak bueltatzen ez zirela ikustean, larritu egin ziren eta poliziari deitu zioten. Poliziak ezer gehiago ezin zutela egin esan zuen, gurasoak oso oso oso oso oso larrituta geratu ziren. Eta poliziak kaleetan kartel batzuk jarri zituen.

Lau urte pasatu ondoren, Ane, Ametz, Mikel eta Izaro ez ziren agertu eta gaiztoak bere buruari lurrean zulo bat egin eta gero tiro bat eman zion bere buruari...

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN ANE, MIKEL, AMETZ ETA IZARO EZ DIRA INOIZ GEHIAGO AGERTUKO BIZITZAN...



DESAGERTUTA

On the way to the
Baku - Baku

ANE



IZARD



AMETZ



AITOR



MIKEL

TFNA: 072 35 81 93
SARIA: 1.000 €

